

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

gaztelaraz



XVII. ANTZERKI ASTEA



Zk. 175 / UDABERRIA 2019 MARTXOA | www.zizurkil.eus / 943 691012
Ernio Bidea 9A, behe, 20159 ZIZURKIL

KULTURA

Apirilak 5

DIRU LAGUNTZA DEIALDIA / CONVOCATORIA DE AYUDAS:

KIROLA, KULTURA, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA EUSKARA INGURUKO EKINTZA INTERESGARRIAK FINANTZATZEKO ETA ELKARTEAK LAGUNTZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA: Udalak 2019. urteko dirulaguntzak elkartei emateko Deialdia kaleratu da eta eskaerak aurkezteko epea apirilaren 5ean amaituko da.

ZIZURKILGO ANTZERKI ASTEA / SEMANA DEL TEATRO:

Apirilak 1 eta 7

2019-04-01: **TUNBA**, orro egiten besterik ez zekien lehoia, **11:00etan Atxulondo** kultur etxean.



2019-04-03: **JULE** kale-antzerkia, **19:00etan**, plazako estalpean.



2019-04-04: **Otaño eta Zubimusu** Ikastolako umeen EMANALDIA, **11:00etan, Atxulondon.**

2019-04-05: **AL BAKER'S SALOON** magia-emanaldia, plazan jarriko den oeste amerikarreko karpan. **19:00etan eta 20:00etan**, pase ireki bana adin guztietako jendeari zuzenduta.



Apirilak 6 **DRAKULA BURUZ BEHERA**, publiko familiarrarentzat, **19:00etan, Zimiterioan.**

PLAZIDA OTAÑO LIBURUTEGIAREN 3. URTEURRENA:



Apirilak 3-5

Haur Gazte Literaturaren Egunaren harira, Otañoako ikasleen bisita liburutegira, eta ipuin-kontaketa amaieran.

Apirilak 6

IPUINEN UNIERTSOA FAMILIAN **11:30ean, Plazida Otaño** liburutegian, Otañoako gurasoen eskutik.

Apirilak 23

Ilusio optikodun orri-markatzaileak egiteko TAILERRA **Plazida Otaño** liburutegian, arratsaldeko **17:00etatik 9:00etara.**

TALLER MARCAPÁGINAS,

Aste 2019. Santua



Aukeratu gustuko ekintza eta eman izena!

APIRILAK 15, ASTELEHENA

Zizurkilgo Mugaranchera irteera, LH4-6koentzat. Zaldiak ezagutu eta muntatzeko aukera. **10:00etatik 13:00etara.** Prezioa: 5 €

APIRILAK 16, ASTEARTEA

Dronak maneiatzen, 2009 baino lehen jaiotakoentzat. **10:00etatik 13:00etara.** Prezioa: 2 €

APIRILAK 23 eta 24

Irteera **Sastarraingo baserri-eskolara, DBHkoentzat.** Prezioa: 25 €



PAREKIDETASUNA

ZIZURKILGO EMAKUME ZIRKULUA OSATU DA: 18:00etatik 19:30era IRIARTEN:

Zirkulu dinamikoa da osatu nahi duguna eta parte-hartzaile berri guztiei irekita dago. Denon artean elikatuko dugu zirkulua, denok baitugu zirkulari zer eman eta bertatik zer jaso.

Martxoak 29

Apirilak 12

Maiatzak 3, 17 eta 31

Ekainak 14 eta 28




**¿VEN A CREAR EL CÍRCULO?
¿VEN A CREAR EL CÍRCULO!
EMAKUME
ZIRKULUA
SORTUKO
AL DUGU
ZIZURKILEN?
OSATZERAI!**

KORRIKA

Apirilak 8

LOREA AGIRREREN HITZALDI-ELKARRIZKETA: NON ETA NOLA GURUTZATZEN DIRA FEMINISMOA ETA EUSKARA?, Plazida Otaño liburutegian, 19:00etan.



Apirilak 11



KORRIKA TXIKIA: 15:15etan abiatuko dira herriko hiru ikastetxeak eta Uliazpi Beibategitik **Zizurkilen** barrena. Zubimusun lekukoa Villabonako ikastetxeek hartuko dute.

Apirilak 13

KORRIKA: 20:00etan Korrika-afaria Joxe Arregi plazan (sarrerak salgai ohiko lekuetan)
- Afalostean, Klika! dantza-ikuskizuna. **DANCE HALL** eta **EUSKAL DANTZA**ren fusioa.
0:00etatik 2:45era musika eta dantza **OIZEDER MAIO DJ**arekin.
3:00etan KLIKA!!! KORRIKA!!! Adunako aldapan **KORRIKAREN LEKUKOA HARTUKO DUTE ZIZURKILDARREK.**

OPORRETAN EUSKARAZ



SELECCIÓN DE MONITORES

OPORRETAN EUSKARAZerako BEGIRALEAK

8-9 begirale kontratatuko dira ekainaren 24tik uztailaren 19ra lan egiteko. Deialdian parte hartu ahal izateko derrigorrezkoa izango da:

- **Zizurkilen** erroldatua egotea.
- 18 urteak beteak izatea edo 2019 urtean betetzea.
- Euskara ondo menderatzea.
- Elkarrizketa-talde dinamika **GAINDITZEA**.

BESTELAKOAK

Apirilak 4 **EMAKUME BASERRITARRAK ETA PENTSIOAK** hitzaldia Iriarten 15:30ean, **NEKAK** antolatuta.

Hautatze prozesuak **2 fase** izango ditu: titulazio eta esperientzia atala eta elkarrizketa-talde dinamika. Zuzeneko hartu emanak duen garrantzia azpimarratu nahian 1go faseari %40ko balioa emango zaio eta 2. faseari %60a.

1

Titulazio eta lan esperientziaren balorazioa egingo da (denbora libreko begirale edo zuzendari titulua, heziketarekin zerikusia duten ikasketa, ikastaro, monografikoak, e.a., esperientzia antzeko lanetan eta langabetu edo ikaslea izatea).

2

Elkarrizketa-talde dinamikak egingo dira. 45 minutuko iraupena izango dute eta baloratuko direnak hurrengo atalak izango dira:

- Parte hartzea
- Gizarte trebetasunak
- Talde lanerako gaitasuna.
- Euskara maila
- Diskurtsoa.

Apirilak 6

TXEPETXA GAZTE EGUNA
Zizurkilgo herri gunean.

